


ttüpi-ttapa

1994ko abenduak 1 • 147. zenbakia

Elkarrizketa

Joakin BALENTZIA
doneztebarrarekin



LABEAK BERO BERO

ABENDUKO ESKAINTZAK TELEBISTETAN

✓ SANYO 14" (37zm) Pal/Secam	36.900,- Pta.	1.557, Libera
✓ NOKIA / OCEANIC 14" (37zm) Pal/Secam 5 URTEKO GARANTIA	39.700,- Pta.	1.675, Libera
✓ DAEWO 21" (51zm) Pal/Secam	54.300,- Pta.	2.291, Libera
✓ NOKIA / OCEANIC 21" (51zm) Pal/Secam	68.200,- Pta.	2.878, Libera
✓ NOKIA / OCEANIC 25" (61zm) Pal/Secam/Stereo 5 URTEKO GARANTIA		
Kablerik gabeko aurikularrak dohainik	114.600,- Pta.	4.835, Libera
✓ SONY 25" (61zm) KV-X2503 Pal/Secam/TXT/Stereo	141.700,- Pta.	5.980, Libera
✓ SONY 29" (71zm) KV-X2903 Pal/Secam/TXT/Stereo	159.700,- Pta.	6.738, Libera

1994ko ABENDUAREN 31 ARTE BALIATZEN AHAL ZARA AUKERA HONETAZ, AITZINETIK EXISTENTZIAK BUKATU EZ BADIRA

RADIO BIDASOA, Eztegara 14 BERA • ☎ 948-630377 ☎ 19-34-48-630377

**MUEBLES
AMETS**
mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA



- Sukaldeak
- Targelak
- Logelak
- Bainugelak
- Pareta
- Armairuak

DATUAK.....

❖ Joakin Balentzia Iruñean sortu zen duela 47 urte eta gaur egun irakaslea da Donezteben.

❖ XV. Irun Hiria Poesia Saria irabazi berri du 'Amaigabeko zikloa' izeneko lanarekin. 750.000 pezeta sakeleratzea eta lanaren argitalpena da sari honen emaitza.

❖ Duela urte batzuk Iruñeko Udaleko Poesia Saria ere eskuratu zuen eta dagoeneko baditu bi liburu karrikaratuak.

❖ Hogeita hamar urte zituela hasi zen euskara ikasten.

❖ 1983az geroztik Donezteben bizi da.

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
ARTXIBOA

Joakin BALENTZIA:

«Malerrekako paisaia naturala eta humanoa berpizten ari da»

ZER KONTATZEN DUZU 'AMAIGABEKO ZIKLOA' IZENEKO LAN HONETAN?


Biziari egindako kantu bat da. Gehien batean poema motzez osatuta dago, nire ustez herriko jendearentzat ere ulerterrezak izanen diren poemaz. Horretarako, nire bizitzako zenbait pasadizo eta anekdota sartzen ditut, eta beti, ikasbide edo moraleja bat agertzen da.

GENERO DESBERDINAK JORRATZEN DITUZU: ITZULPENGINTZA, POESIAK, SAIAKERAK... ZEIN DA GUSTOKOEN DUZUNA?

Gustokoena, seguraski, olerkigintza dut bainan ipuinen modura landuta. Poesietan saiakerak ere sartzen ditut bainan modu apal batez eta bost lerrotan kondatuz hogeita hamar orrialdetan joanen zena. Itzulpengintza, batez ere, euskara trebatzeko erabiltzen dut eta gehienak italieratik euskarara egindakoak dira.

LITERATURA KONTUAK ALDE BATERA UTZIAZ, NOLA IKUSTEN DUZU MALERREKA?

Arras ongi ikusten



dut. Paisaia naturala eta paisaia humanoa berpizten ari dela uste dut. Poliki poliki Malerreka eta bere inguruak berezko euskaldun itxura hartzen ari dira. Horregatik, sari hau bereziki Malerreka, Bidasoa eta Baztango euskaltzale guztiei eskaini nahi diet.

» «Malerreka eta bere inguruak berezko euskaldun itxura hartzen ari dira. Horregatik, sari hau bereziki Malerreka, Bidasoa eta Baztango euskaltzaleei eskaini nahi diet»

HAMEKA URTEOTAN NABARITU DUZUN DIFERENTZIA HORI, GAUZAK BENETAN ALDATU DIRIELAKO OTE DA EDO BEHARBADA ZU INPLIKATUAGO SENTITZEN ZARELA OTE DA?

Bai, aldatzen ari da. Agian bigarren parteagatik ere bada, bainan, jakina, objektiboki beti juzkatzen dugu subjektiboki pentsatzen dugunaren arabera.

ORDUAN, PATZI-

KUK DIOEN BEZALA, ZUK EZ DUZU USTE HAU DESERTU KULTURAL BAT BIHURTZEN ARI DENIK?

Ez, ez dut horrela ikusten. Gauzak antolatzen ari dira eta egiten ere bai. Poliki poliki bagoaz aitzinera. Batzutan zirkulu ttikit baina... jendeak segitzen du bere betiko bizitzan. nahiz eta zenbaitetan kultura munduan gabiltzanok desanimatzen garen. Ikuspegi hori negati- boegia da nire ustez.

OKINDEGIEN MUNDUAN

KONPETENTZIA SORTU DA



Garai batean baserri eta etxe gehienetan bazuten ogia erretzeko laberik.

Denborarekin, ordea, etxeko ogi-labe horiek desagertzen joan dira eta beraien lekua okindegi industrialek hartu dute.

Ogiaren kontsumoak beheiti egin omen du batzuren ustez, bertze batzuk diotenez, ordea, kontsumo mailak berdintsu segitzen omen du. Dena dela, gauza bat dago garbi; inoiz baino jende gehiago dabilela bazterrotan okindegietan lanean.

a

zken urteotan okindegi berriak joan dira agertzen han-hemenka. Eta ez hori bakarrik. Beste batzuk, lehenagotik zuten labeari instalazio eta labe berriak gaineratu dizkiote eta hortxe dabilta herriz herri, jo ta fuego, beren produktuak saltzen. Itxura guzien arabera, beraz, guzti hauek ogia egiteari nolabaiteko errentagarritasuna ikusi diote.

IRABAZIAREN BANAZ BERTZEOA

Bainan itxuretan bakarrik ezin denez oinarritu,

Etxalarko okindegira jo du-gu afera honetaz datu zehatzagoak izateko. Aipatu behar da lehenik, okindegi hau berezi xamarra dela, mixtoa baita jabetzari dagokionez. Hau da, akzioen %51a udalaren esku daudela, eta gainerako %49a, partikularren esku. Ba, zera erran digu Miguel M^a Irigoien okindegiko lehen-dakari eta Etxalarko alkate denak; *“urte osoko salmentak kontutan hartuz eta idea bat egiteko, irabazitan eskuratzen den milioi pezeta bakoitzendako 330.000 pezeta sartu behar dira gastutan”*. Gastuak erraterakotan, funtzionamendu gastu guztiak kontutan hartzen dira: soldatak, irinak, amortizazioak... Badago erraterik, hortaz, balantze ekonomikoaren emaitza onak direla azken aldi honetan sektore honek erakusten duen dinamizazioaren arrazoirik funtsezkoena.

ESKAINITZA HAUNDIAGOAREKIN KALITATE HOBEA

Gusto kontuak alde batera utziaz, jendearen artean arrazabaldia den ustea da hau-xe: *“okindegi berri bat agertzen denean, orohar, ogiaren kalitateak hobetzera jotzen du”*. Eta egia erran, ez dago arrazoin faltarik, azken finean merkatu legea baita tartean dagoena. Gaur egun gero eta normalagoa da duela urte batzuk

«Guk herri franko ibiltzen ditugu, hamabost bat edo... Ezkurratik hasi eta Elizondo arte»



Martin MITXEO
Saldiasoko Okina

■ Noiztik duzue ogia erretzeko labea?

☐ Berrogeita bi urte bederen bai. Garai hartan ama hasi zen eta nik lagundu egiten nion, eta geroago, nire gain hartu nuen. Guk egurrezko labeak ditugu, egurrezko labeak gusto diferentia ematen baitio ogiari eta irauteko ere, egurrezkoan eginak gehiago irauten du.

■ Zein ogi klase egiten duzue?

☐ Bi klase. Kontua da aurtan labe berria egin dugula, beste labe bat, eta ogi lu-

zexkak egiten ditugu, eta labe zaharrean, betiko ogi boroilekin segitzen dugu.

■ Eta saltzeko orduan berri-herri mordoxxa korritzen dituzue ezta?

☐ Bai, herri franko ibiltzen ditugu, hamabost bat edo... Ezkurra aldetik hasi eta Elizondo bitarte.

■ Zer egiten duzu, dendetan utzi...

☐ Gehien batean herrietan bozina jotzen dugu eta erosi nahi duenak ateri egiten da. Gehienetan horrela. Denda bat edo bestean uzten dugu, baina gutxi.

baino ogi aukera zabalagoa topatzea okindegi guztietan: ogi integralak, ogi borobilak, luzeak, erromanoak, itxura eta tamaina desberdinetakoak, opilak, croissantak... denetarik.

Eta ez da hori bakarrik. Kalitatea eta aukera hobetzeaz gain, zerbitzua bera hobetu egin da nabarmenki.

OGIA ETXEETARA

Hainbat herritan, ez denetan, okindegi desberdinen arteko konpetentzia dela eta, ogia etxe eta baserrietara banatzen hasiak dira. Izan ere, zerbitzuak eta kalitateak erabakiko baitu, azken finean, okindegien arteko auzia, zeren, ogiaren prezioari dago-kionez, tarte baten barnean ezarria baitago legez. Hau da, lehen mailako bertze zenbait kontsumo gairekin gertatzen den bezala, erregai edo gasolineekin adibidez, administrazio publikoak ezartzen ditu ogiaren gehien eta guttieneko salneurriak.

KONTSUMOAK

BERDINTSU SEGITZEN DU


Gero eta ogi gutiago jaten dugula entzuten da bazterretan. Bainan, Etxalarko okindegiko arduradunen ustez, 'kontsumoak ez du gutiagora egin, izatekotan berdintsu segitzen du, azken urteotan bederen'. Behar bada bertze kontu bat da merkatu berbera hornitzeko azken urteotan saltzaile gehiago agertu denez, zenbait okindegik salmenta murriztagoak izatea.

KONPETENTZIA, ORDEA, AZKARTU EGIN DA

Goitiago aipatzen zenez, ogia egiteak badu errentagarritasunik, eta horrek, orain arte ezagutzen etzen dinamismoa sortu du sektorean. Eta gainera, kontutan hartu behar da betebeharrak fiskalak betetzen diren artean, herri bateko ogi saltzaileak ondoko herrian saltzen ahal dituela bere produktuak inolako proleमारिक gabe. Hortxe dago konpetentzia ■

BANATZAILE-
AK GOIZ GOI-
ZETIK HASTEN
DIRA OGIA
BANATZEN
DENDA ETA
ETXETANBA-
RRENA.

OKINDEGIAK BANAN BANAN



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.900 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

uzendaria: Joxemanuel Iri-
bien. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
r Arozena, Joxemanuel Iri-
bien. **Erredakzio taldea:** Pe-
o Apezetxea, Juainas Paul,
ristina Boan, Bittori Telletxea.
erriemaileak: Joseba Azpi-
z, Esteban Arozena, Juana
ari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
an Isasi, Txema Aldabe, Pello
xegia, Txema Urroz, Patxi
txandorena, Daniel Martirena,
abel Maia, Josune Etxebeste,
ablo Mendiburu, Joseba Iga-
bide, Alizia Olaizola, Margari
xenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Marta
urria, Oskar Txoperena, Al-
erto Sansiñena, Pello Apeze-
tea, Aitor Arozena, Kristina
boan. **Administrazioa:** Amaia
ioia. **Kolaboratzaileak:** EHNE
afarroa, Patxi Lasa, Josetxo
usperregi.

primategia: Gertu (Oñati).
ttiipi-ttapa ez du bere gain
artzen derrigorrez, aldizkarian
dierazitako erranen eta eritzien
antzukizunik
akunde Laguntzaileak:
era, Leitza, Goizueta, Areso,
aztan, Urdazubi, Zugarramur-
eta Sarako udalak, Bor-
rietako Euskara Mankomuni-
tea, Malerreka Zerbitzu
ankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Nekazalturismoa: baserria osatzeko edo baserria baztertze

Normatiba estutu nahi genuke pentsio kamuflatuak ebitatzeko



Patrizia GARRIDO
Nekazalturismo etxeak

Hasieratik egindako plan-
teamenduren arabera, baserriarentzat osagarri bezala ikusi da ne-
kazalturismoa. Sekulan ez nekazaritza ordezkatzeko edo ekonomiaren motorea izateko. Hortik abiatuz, Na-
farroako Gobernuarekin azken aldian izandako solasaldietan, zera planteatzen genuen: argi eta garbi defini-
tzea baserria, eta horren ara-
bera normatiba ere estutzea. Bereizi egin nahi da zein den nekazaritzatik bizi den neka-
zalturismo etxea eta zein ez den. Eta gauza bere nekazal-
turismo etxeen gidatan ere. Zehaztuko egingen da zein etxetan badauden azindak eta zeinetan ez. Laguntzei dago-
kionez, bertzalde, nekazaria denak Nekazaritza Departa-
mentutik eskatuko ditu la-
guntzak, eta gainerakoek, Turismo Departamentutik. Bertze kontu bat da kontsor-
tizioak planteatzen duen ma-
sifikazioa Kopuruari dago-
kionez. Horrek ez du ez hankarik eta ezta bururik ere.

Nekazalturismo etxea dutenetik arront guti dira nekazari aktiboak



Juan Martin ALEMAN
Amairko nekazaria

Baserriarentzat osagarri izanen zelako esperan-
tzarekin hasi ginen eta halaxe ikusten genuen, baserria xutik kontzeko baliagarria izanen zela. Bainan denborarekin ageri da eskubide zabalak utzi direla eta orain badago na-
hiko jende indartsu, kasik kasik afera hau inbertsio-
netzat hartzen dutenak. Hor-
txen ikusten dut arriskua. Beldurra emateko modukoa da. Ez bada kontrol haundia-
goa egiten, hemengo herrien identitatea galtzeko arriskua dago. Gaur egun zona hone-
tan nekazalturismo etxeak dituztenetatik arront guti dira nekazari aktiboak direnak eta euren aktibidade printzipala bertze zerbait da. Guzi hau nolabait kontrolatu beharko luke administrazioak eta ez dut ikusten egiazko inten-
tziorik badagoen horretan. Nahiko bide zabala uzten dute. Asozioazioaren aldetik ere ez dut uste nahiko inda-
rrik dagoenik. Izan ere Jun-
tan nekazariak ez direnak dira gehiengo.

Nekazaritzarik gabe, nekazalturismoak ez du zentzurik



Fermin MAEZTU
ITGko teknikoa

Baserriak uni-
tate ekono-
miko, sozial eta kultural bezala iraun ahal izateko, beti egokitze pro-
zesuan sartua egon da. Hor-
taz, baserriaren dibertsifika-
zioa beti gertatu da historian
barrena. Zentzu honetan, ba-
serriak, bizirik irauteko beha-
rrezkoa duen neurrian onar-
tua izanen da nekazalturis-
moa dibertsifikazioaren bar-
nean. Nekazalturismoaren xarma herri ttikietako gizar-
tearen hiru baloretan oinarri-
tzen da: inguru naturala, kultura ondasunak eta neka-
zaritzan aktibitate bezala. Azkeneko hau da hiruetan garrantzitsuena, gainerako biak baldintzatzen baititu. Hortaz, nekazalturismoak ez du inolako zentzurik ez ba-
dago oinarria emanen dion nekazaritzarik. Nekazaritza desagertuko bada nekazaltu-
rismoa ere desagertuko da, turistek beste inguru espe-
takularragoa bilatuko dute-
lako. Gaur egun baserria se-
rioski laguntzen da edo des-
agertzeko arriskuan dago.



MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberrako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

BOTA BERTSOA

**Eneritz MITXELENA**Bortzirietako Bertso Eskola
Neurria: Zortziko Haundia**Intsumituak
gose greban**

*Soldaduskara joatea da
mutil denen misioa
Estatu horrek ez du lortuko
gazteen sumisioa
zure gogoan alde aritu
eta gero juizioa
denek batera oihu dezagun
ozen Intsumisioa!*

*Intsumisioen gose grebakin
ailetu da oihartzuna
ta kanpokoek adierazi
diegu elkartasuna
eta seguru denborarekin
denek lortuko duguna
norberak bere erabakiak
hartzeko askatasuna.*

**Intsumituekin
elkartasuna**

Idazki honen bidez gure salaketaren aipamena egin nahi dugu, izan ere azaroaren 18an, gure lagun eta senideen destinoa erabakiko duen zozketa egingen baita.

Eraberean, gose greban dauden intsumitu presoe-kiko elkartasuna adieraziz. Gainera, bertan irakasten diren balore zaharkitu eta atzeratuen salaketa egin nahi dugu, militarismoa eta bortxakeria diren bezala. Hala nola norbanakoaren askatasunaren aurka joaz, gizaki guztien gutxienezko printzipio etikoak zapuzten dituen.

Honela ba, intsumituekiko elkartasuna adierazi nahi dugu.

Aurrera INTSUMISIOA.

BERAKO LANBIDE HEZIKETA
INSTITUTUKO IKASLEAK

**Betikoa**

Bertiz Partzuergo Turistikoak inguruko bailare-tako turismoa bultzatzeko asmoz "Bailara lasaiak" eta "Oinez eta bizikleta-rako ibilaldiak" liburuxkak atera ditu, ale batzuk euskaraz eta beste batzuk

gazteleraz.

Politak eta txalogarriak benetan Partzuergoaren asmoak; baina beti agertzen zaigu "baina"ren bat eta gehienetan, beti ez erratearren, gure hizkuntzaren kalterako.

Mapak eta toponimoak euskaraz dauden liburuxketan ia dena gazteleraz agertzearena lotsaga-

ria deritzogu: Yanci, Bozate de Arizcun, Cerro de Orizqui, Convento de las Carmelitas, Alto de Layaundi, Cinco Villas...

Liburuxkak egin dituzuen bezala, hain zaila litzateke mapak behar bezala paratzea?

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA (IKA)

**Istripua Lesakako
zubitik Etxalarko
Bentarako bidean**

Azaroaren 5ean, larunbata, arratsaldeko 6ak alde-ra, istripu bat izandu genuen Lesakako zubitik Etxalarko Bentara doan karreteran, inguru horretan egoten diren ahuntz batzuengatik.

Norenak diren dakienak, mesedez deitu dezala (943)644545 telefonora inor hil baino lehenago. Milesker.

ENDIKA EZKERRA

IRUN

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makina idatzitako
25 lerro baino
luzeago idaztea
gutun hauetan.
Idatzi duenaren
izen-deiturak,
telefonoa, helbidea
eta ENAaren
zenbakia agertu
beharko dira.
Laburtu beharra
izanez gero, **ttipi-
ttapak** bere esku
izanen du horretarako eskubidea.*

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



aquerreta S.L.

MOBLE ETA BULEGO MAKINAK




ESKaintza Berezia

**IDAZMAKINA
ELECTRONICA T.A. 110**

PREZIOA: **19.500** Pta.

Soroxarta Polig. 3-A B.º Anaka. 20300 IRUN
Tfnoak: 943/ 61 02 22 - 61 44 34 == Faxa: 943/ 61 44 34



LESACA



EGIN 94-XI-16

«Profesionaltasuna lortu behar dugu Nafar iratiok eta horretarako arazo legalak konpondu behar dira. Berrero ere, Gobernuari eskatu nahi diogu lizentziak lor ditzala euskal irratien-tzat».

Joseba IGARABIDE
Xorroxin Irratikoa
Egunkaria 94-XI-16

«Seguru nago lau t'erdiko txapelketan sartu zidatenean durorik ez zuela inork neregatik emanen, eta aunitzek hamar pilotarietatik txarrena nintzela uste zuten».

Inaxio ERRANDONEA
Alkaiagako pilotaria
EGIN 94-XI-15

◆ Bidaia, luzeak edo motzak?

❖ Motzak nahiago.

◆ Hurrekin edo jubilatuekin?

❖ Hurrekin hasi nintzen eta hurrekin nahiago.

◆ Txoferra ez bazina, zein ofizio nahiago?

❖ Mekanika lana gustatu zait beti.

◆ Denbora pasa, zertan

❖ Mendian, plaiara ez nauk eramanen aisa.

◆ Nora?

❖ Hueska aldera, Pantikosa ikustera.

◆ Jubilatu eta gero zer?

❖ Oilagorretan, mendian ibili eta baratzean aritu.

◆ Intsumisioa nola ikusten duzu?

❖ Bakoitzak berak ikusi behar dik.

◆ Nola ikusten dituzu oraingo gazteak?

❖ Herrikoak ongi eta ingurukoak ere bai.

◆ Gerora begira, hemengo herri hikiak zer?

❖ Herri aunitz abandonatuko dira, Labaina lehenik.

◆ Bidaietako gertaera bat?

❖ Bordelera joan eta jendea ezin bilduz, majo edanak.

◆ Euskara galduko ote da?

❖ Ez, hemen ez, ez zait iduritzen.

**Juanito SAN MIGUEL**

Oizko autobus gidaria

ZIZKA OSTATUA


Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA



ZURE MODAKO DENDA MARKARIK HOBERENEKIN:

- | | |
|------------------|---------------|
| ✓ Daniel Hechter | ✓ Bonaventure |
| ✓ Caramelo | ✓ Replay |
| ✓ Barbour | ✓ Diesel |
| ✓ Genfis | ✓ Island |
| ✓ Lacoste | ✓ Blanc bleu |

EGUBERRIETAKO OPARIK HOBERENA

Fuenterrabia, 6 Tfnoa. 943-615815 IRUN

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

KIROL MODA

Sport 3

MARKAK

- | | |
|--------|------------|
| NIKE | CONVERSE |
| ADIDAS | QUIKSILVER |
| REEBOK | LIBERTO |

COLON P., 48 © 943- 61 23 40 -- IRUN



Zaharretxe berriaren obrak ofizialki hasiak dira

Lehen harria jartzera Arkupeak, Nafarroako Gobernua eta Berako Udala agertu ziren

KRISTINA BOAN

Azaroaren 24ean, jarri zen Berako Zaharretxe berriaren lehen harria. Ekitaldira Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuako lehen-dakaria, Ricardo de Leon Ongizate Sozialeko kontseilaria, Manuel Iriarte alkatea eta Felipe Ganboa Arkupeak Elkarteko lehendakaria etorri ziren bertzeak bertze.

Ekitaldiari 12etan eman zitzaion hasiera Meza batekin, etalehen harria jarri ondotik, bazkaria izan zen Eztegar pilotalekuan. Bazkalondoa dantzaldia izan zuten eta hasiera batean Iñaki Perurena marka berri bat haustera etortzekoa baldin bazen ere, azkenean ez zuen etortzerik izan. Afera honekin loturik, zera argitzea eskatu digu Arkupeak Elkarteko buru den Felipe Ganboak: 'Iñaki Perurena etorri izan balitz,



Zaharretxe berriak 40 lagunendako kapazitatea izanen du. Lehen harria jartzera agintari ugari etorri ziren.

Karmele TOLOSA

350.000 pta. ko diru-laguntza eskatuko ziotela Berako Udalari, bainan etorri ez denez, 150.000 pta. bertzerik ez diotela eskatu. Antza denez, Iñaki Perurena ez zegoen markaberria hausteko nahiko pres-tatua eta ondorioz, Berako udalak Arkupeak Elkarteari emanen dion diru kopurua 150.000 pta. koa izanen da eta ez 350.000 pta.'

Soldaduzkako destinoak

Aurten hamabi gaztek joan beharko dute urte bateko kanporat. Destinoen artean badira etxetik hurbil geldituko direnak, bainan baita urruti joan beharko dutenak ere, Zeuta eta Melillara. Soldaduxkara joango direnak eta norat, hauek dira: Karmelo Altzuguren,

Jose Ignacio Irazoki, Asier Lekuona, Luis Martin eta Andoni San Juan Iruñera; Borja Bergol Gironara, Juan Dagerre Donostira, Jabier Etxegarai eta Jose Luis Perez-Tabernero Armadara, Jose Huizi Melillara, Antton Lasarte eta Haritz Martinez Zeutara,

ttipi-flash

'Osasunerako hezitzea'

Nafarroako Guraso Elkarteen Federazioak 'Osasunerako hezitzea' deitzen den programa antolatuko du. Hori dela eta, hitzaldia izanen da abenduaren 1ean Jesusen Bihotza ikastetxean. Familia, eskola, drogo-dependentsia eta aisialdia izanen dira gai nagusiak eta 6etan hasiko dira.

Larun Mendi Taldea

Abenduaren 4ko irteera goizeko 9etan ateriko da Ikastolatik Agina aldera joateko. Hurrengo igandean berriz, mugarriz mugarri Mandelarraino ailegatuko dira. Bertalde, mendian federatu nahi duenak dei dezala 630356ra.

Ordexko Zerbitzu Soziala

Berako Suhiltzaileen parkean 15 gaztek egin ahal izatea eskatuko du udalak, Berako kontzientzia eragozleen kopurua haunditu delako.

LABEZAR
© 631076 • BERA

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA



ANSONEAA
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630 072 • BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



Laminaciones-ek 456 langile guttiago izanen ditu 97rako planaren arabera

Lanpostu horietatik berrehun eta berrogeita hamabortz aurrejubilazioaren bitartez desagertuko omen dira

AITOR AROZENA

Laminaciones-eko Enpresa komiteko sindikatu guztiek ESK-CUIS ezik sinatu zuten azaroaren 9an kontratu ezeztatze espediente. Espediente honen arabera, AHV osoan 795 lanpostu kenduko dira, horietatik 255, aurrejubilazioaren bitartez. 1997rako plan-gintzaren arabera ber-ritz, bertz 200 lanpostu gehiago galduko dira.

Halere, inbertsio berriak ere aurreikusten dira espediente hone-tan. Laminacionesek 3.358 milioi pezeta jasoko omen ditu (116 milioi Legasak, 1.077 milioi Lesakak eta 2.228 milioi Zalainek). Espedientea sinatu duten sindikatuak bai-kor azaldu dira, etorki-zuneko inbertsioetan eta pertsonalari dagoz-kion arazoetan Enpresa Komitearen eritzia kontutan hartu beharko baita.



Jendetza ikaragarria izan zen aurtengo feria egunean. Ikastolak antola-tutako opil salmenta postua izan zen aurtengo nobedadea Arg.: Karmele

Fidel Ordoki irabazle Beti Gazteko argazki lehiaketan

Fidel Ordoki lesaka-rra izan da aurten Beti Gazte elkarteak lauga-rrer urtez antolatutako argazki lehiaketaren irabazlea, 'Erriberan' izeneko argazkiarekin. Bigarren saria Manuel Alvarez Botas donos-tiarrak eskuratu du 'Re-greso al atardecer' la-narekin. Kirol argazkiei dagokienez, Bergarako

Benito Canteroren 'Ventisca' izan da one-na epaimahaiaren ara-bera.

Guztira 110 argazki aurkeztu dira lehiake-tara, iazko kopuru ber-dintsua. Halere, anto-latzaileen erranetan ar-gazkien kalitatea dexente hobetu da ai-tzineko urteekin konpa-ratuta.

1957ko kintoen bazkaria abenduaren 8an

Aurten hogeitahi-rugarren aldiz bilduko dira Lesakan 1957an soldaduska egin zuten kintoak. Urtero urtero lesakarrak gain, Igan-tzi, Arantza, Oiartzun, Irun, Lezo eta ingu-ruko bertze zenbait he-rrietako kintoak elkar-tzen dira bazkaltzera eta aurten bertze

horrenbertze eginen dute abenduaren 8an, Lesakako Irubide ja-tetxean. Lehengo ur-teetako lagunetaz gain bertze norbaitek hur-bildu nahi badu, 637127 telefonora dei dezala.

Giro eta umore ona segurtatuak izanen dira behinpein.

ttipi-flash

'Senideak'

presoen familiakoen elkarteak enkartela-da burutu zuen pla-zan feria egunean.

Kontzertuak Kattun

A b e n d u a r e n 1 e a n , g a u e k o 10,30- e t a n J a b i e r M u g u - r u z a k 'B o z a b a r r u - a n' d i s k a a u r k e z t u k o d u . A b e n d u a r e n 5 e a n , a r r a t s e k o 8 e t a n 'T r i o K a l a b e r a Q u a r t e t ' t a l d e a a r i - t u k o d a .

KOXKILA
OSTATUA

Zarandia 4 - LESAKA

BEREAU
jatetxea

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

ORBELA
GIMNASIOA

- ♣ Squash
- ♣ Sauna
- ♣ Gimnasia aparatuak
- ♣ Hidromasai bainera

Antoiu 21
(Osasun zentroaren ondoan)
☎ 637950 • LESAKA

Patinetako ikastaroa antolatu du Altxatak

Hogeita hamabi haurrek eman dute izena eta maiatza ondarra arte luzatuko da

PELLO ETA ALBERTO

Azaroaren 12an hasia, maiatzaren ondarra arte luzatuko da irristailuedo patinetako ikastaroa. Adin desberdineko hogeita hamabi haurrek eman dute izena eta bi taldetan ariko dira.

Altxata Elkarteak antolatu du 130.000 pezeta inguru kostako den ikastaro hau, nahiz eta Nafarroako Gobernuak zerbait laguntzea espero den.

Uso ehizaldi urria

Ondarreko urteetan aski urria izan bada ere harrapatu den uso kopurua, aurtengoak beheiti egin du: 700 uso inguru. Ehiza ttikitzearen arrazoiak?

Zuzendaritza berria Guraso elkartearen

Urteroko berritzearekin, Landagain eskolako Guraso Elkartearen

Maria. Eugenia Ibarra, Anabel Goienetxe eta Jose Mari Maiak utzi duten lana Maria Jesus Sanzberro, Axun Maia eta Mari Jose Iparragirrek hartu dute.

Soldadutzako destinoak

Aurten etxalartar bakarra sorteatzen zuten, Iñaki Zubieta Ameztoi. Iruñera tokatu zaio.



Patinetako ikastaroan gustora ari dira herriko neska-mutikoak

Arg.: PELLO

Personaia



Esperanza Iparragirre Urtzallenea

• **Astero elizan loreak paratzen aritzen zara. Noiztik duzu lore zale-tasun hori?**

Gazte-gaztetatik. Etxeko aldamioa beti lorez beteak edukitzen genuen, Alda-lurrean bizi ginela. Baratzeari ere izaten genituen.

• **Zenbat denbora da elizan ari zarela?**

Ez dakit. Hogeita urte guttienez, bai, Aureitari laguntzen hasi nintzela.

• **Paratuz gainera egin ere egiten dituzu loreak. Zerk ematen du lanik haundiena?**

Lan gehiena loreak egiteak du, dudarik gabe: Erein, landatu, zaindu. Paratu erraxago egiten da.

LORA DENDA
TXURULA
Bitria LESAKA
627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 09 67
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

«U S O A»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

KOXXKONTA
Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESACA**

zimeldi
ALTZARIGILEA
▲ **Kolorea gustatzen zaizu? sar ezazu kolore pixka bat zure etxean altzari tintatuak egiten ditut**
Deitu eta neurriak hartuko dizkizut
© 387017 • **ETXALAR**

LESAKAKO ZUBIA
N-121-A
ZUMELDI
ETXALARKO BENTA

Leitzara egin zuen abesbatzak bere lehendabiziko irteera

Martxan daude, bertzalde, Biltoki elkarteko mus eta partxis lehiaketak

OSKAR TXOPERENA

Biltokik urtero antolatzen duen mus eta partxis lehiaketarako izena ematea irekia dago. Parte hartu nahi duzuen guztiak abenduaren 4ra arte ematen ahal izanen duzue izena, 3.000 pezeta ordainduz bikoteko.

Gauza segurua ez bada ere Biltoki Ttiki-koak ere horrelako zer-bait egiteko asmotan dabilta. Bertzalde, gazte hauek arazoak izan omen dituzte bertako zenbait bazkide-rekin lokalaren erabilerara dela eta. Elkartea-rekin egindako bileran hauen kontra neurri gogorragoak hartu beharko direla aipatu zen.

Lanak

Lesakara doaien



Pozik etorri ziren abesbatzakoak Leitzara aldean kontzertua eskeini ondotik, leitzarrek harrera ezin hobea eskeini omen zieten eta

Arg.: OSKAR

errepideko kunetak moldatzen ari dira udal langileak. Mesede ederra eginen diete horbarna dabilta ko-txei, hagitz hondatuak baitzeuden Lasastiko erreka-koak batez ere. Obrekin ari garenez,

piszina ondoan doaien tenis pista egiten ari direla erranen dugu. Momentuz ez dute zortetxarra eguraldiarekin, horretan ari diren Tenissinco enpresako langileek.

❖ Azaroaren 17ra

arte zegoen irekia Eskola kontseiluan sartzeko hautagaien izen ematea. Inork izenik eman ez zuenez, guraso guztiak izanen dira hautagai abenduaren leian eginen den hautaketan.

❖ Jostatzeko

tresna berriak ekarri dituzte eskola gibelean paratzeko. Aditu dugunez, abudoparatzeko asmoa omen dute. Erran beharrik ez dago haurrek hala espero dutela.

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA



IRU BIDE
ERRETEA

Tfnoa: 637127
LESAKA



HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR

JATETXEA

© 635290 • ETXALAR

ORDOKI
ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 Tfnoa: 637034 - LESAKA



Herriko sei gazte soldaduskara joateko zozketatu zituzten

Halere ez dago garbi oraindik denak joanen ote diren edo bertze bide bat hartuko duten

GARBINE ETA ELIXABET

Urteroko soldadus-karen zozketan herriko sei gazteri jakinarazi diete beraien destinoa, bainan oraindik ez da segurua denak joanen ote diren. Halere, hona gazteen izenak eta beraien destinoak: Jose Luis 'Bake' Kanarias-etara, Romantxo Iparragirre Iruñera, Imanol Iturria Iruñera, Gervasio Maiz Melillara, Patxi Mutuberria Ferrolera eta Aitor Telletxea Iruñera.

Eskola eta medikuaren etxeko garbiketa

Urtero bezala, eskolako eta medikuaren etxeko garbiketa lane-tako arduradunaren



Eskola eta mediku kontsultaren garbiketa lanetarako eskeintzak abenduaren 9ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira

zozketa egingen da. Abenduaren 9an, eguerdiko 12ak baino lehen izena eman behar da zozketa honetan parte hartzeko. Segidan, lak aldera eskein-

tzen sobreak irekiko dira eta udalaren hurrengo bileraren ondoren garbiketa arduradunaren izenaren berri jakinen da.

❖ **Azken TTPI-**

TTAPAN aipatutako herriko bi langileak erdi galdutako bideak garbitzen ari dira.

❖ **Kultur Astearen** ekitaldiak arrakasta izan dute.

Arantza, Igantzi eta Etxalar UEMAn sartzea eskatu du HBk

Bortzirietako HBk idatzi bat igorri dio Euskara Mankomunitateari hiru herriok UEMako (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kide ahal bezain laisteregiteko.

Idatziaren arabera, UEMako kide izateko udal batek euskaraz bizi eta funtzionatzeko helburua bereganatu behar du eta udalerriko biztanleen % 80a euskalduna izan behar da. HBren ustez Etxalar, Igantzi eta Arantzak bi baldintzak betetzen dituzte eta Bera eta Lezakak lehena.

Errekalde ostatua

Ortizraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



INAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
☎ 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
☎ (943) 61 24 24
20300 IRUN

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

☛ Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!



Ulibeltzak elkarteko bilera abenduarien 3an burutuko da

Bertzalde, olentzero egunerako prestatzen hasi behar dira herriko neska-mutikoak

JOSUNE ETA IXABEL

Larunbat honetan, abenduaren 3an, arratsaldeko 7etan Ulibeltzak elkartean bilera orokorra egingen da.

Urteroko asanblada honetan gai interesgarriak eztabaidatuko dira. Lehengo agiriaren irakurketa eta onartzearen ondoren, sozio berriei buruz arituko dira. Hirugarren puntuan bestetako kontuetaz arituko dira eta gero, aurtengo Eguberrietan burutu beharreko ekitaldietaz arituko dira. Azken puntuan, beti bezala, eskari eta galderak izanen dituzte.

Idazkaritza ordutegia

Herriko Etxeko idazkaritzako ordute-



Txus Iriarte da Ulibeltzak elkarteko lehendakaria

gia lehenagokora itzuli da berriro ere.

Honela, beti bezala, goizeko 9etatik eguerdiko 1etara zabalik izanen da astelehenetik ortziratera. Euskara ikastaroa akitu ondotik, Manolo Irigoien arituko da idazkari lanean. Sustituzioa egiten M^a Jose Larraioz egon da.



Karrika nagusiak badu moldatzeko behar ederra

Olentzero egunerako entsaioak egiten hasiko dira

Eguberriak heldu dira eta aurten berriz ere olentzero egunerako entsaioak hastera doaz herriko neska-mutiko guzientzat. Larunbatero Arantxaren lokalean egingen

dira entsaioak.

Aurten ere, lortzen den diruarekin berendua egingen da Ulibeltzak elkartean eta kurtso bukaerarako ikuskizun bat ekarriko da Sunbillara

Karrika Nagusia

moldatzeko 23,5 milioi jaso ditu Sunbillako udalak. Laguntza hau azerak eta asfalto hobetzeko erabiliko da. Halere, bertze 40 milioi pezeta falta dira oraindik saneamendu lanetan hasi ahal izateko.




GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

Mari Cruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.

1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



Alhondigako beheko aldea saldu eta pabilioi bat erosiko du udalak

Honorio Taberna zinegotzia kontra azaldu zen, bere ustez hor espekulazioa egon daitekeela erranez

TXEMA ETA KARMELO

Lehen alhondiga zegoen tokian, egin berria den blokearen beheko aldea edo bajera 321 milioitan salduko du udalak eta diru horrekin pabilioi baterosi. Bertan udalak dituen tresneria, apaxu eta gainontzeko gauzak kontuko dituzte.

Erabaki hau azkeneko plenoan hartu zuen udalak, 5 zinegotzi honen alde agertu ziren. Honorio Taberna berriz, kontra azaldu zen. Bere ustez, hori espekulazioa da eta hasierako erabilpena ez zela hori erran zuen, udalak eta gazteek erabiltzeko baizik. Hone-taz gain, saltzea herriko komertzioaren kalterako zela zioen. Alkateak berriz, espekulazio hitza gogorregia zela erantzun zion, herrian bazirela hainbat bajera erosi nahi zuenarentzat, komertzioetan eragin onik edo txarrik egin gabe.



Aurtengo ferietan, ikusmin handia sortu zuen azienda erakusketak. Euskaraz saltzeko eta erosteko txoko bat ere izan zen, Langarra euskara taldeak bultzatua

Argazkia: Karmelo

Bertzalde, lokalen beharra badela eta Azkarreta etxearen (lehengo asiloa zena) beheko aldea udalarena izanen zela hogeita hamar urtez prorrogen bidez eta behar ziren zerbitzuak hor kokatu zitezkeela gaineratu zion Honorioi alkateak.

Honorio bertzekoja bat ere azaldu zuen

Alhondigako etxeak dela eta. Honorioaren erranetan, etxe horren inguruan ez dagoela bakar bat ere leihotako ixkinetan eta tarteetan harririk ez duenik, eta hori udalarendako onartezina dela. Gai honen gain, zinegotzi guziek ahobatez eman zuten beraien konformitatea.

Administrari laguntzaile berria kontratatatu du udalak

Probatara lau lagun deituak izan baziren ere, euskararen frogatik bakarrik egin zuten, bakar batek ere gaititu ez zuelarik proba hau. Azkenean, Joxe Ezkurra izan zen hautatua eta bigarrena, boto batez, M^a Jose Zarranz.

Sei hilabeteko kontratua izanen du.

❖ **Ezpelura** uhaldean egin beharreko lanak Coyser enpresak eginen ditu, bere lan eskeintza 12.857.908 pezetakoa izan baitzen merkeena (proiektuan baino % 19,6 guttiago).

Hiru kontratu zinemaldirako

Aurtengo zinemaldirako Arantxa Saldias eta Marisol Arraztoari kontratua berri die udalak. Pelikulak botatzeko teknika berriz, berriki kontratatatu du udalak eta Felipe Ganboa izanen da, bera izan baitzen probetan hoberena. Bertzalde, 1.580.000 pezetakoa izanen da aurtengo pelikulen kostoa, BEZa, propaganda eta garraioa sartu gabe.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

BEINTZAKO OSTATUA



Tfnoa: 45 00 14

BEINTZA LABAIEN

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun
20.000 irakurle



SANTAMARIA

Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Herriko ostatua martxan jarri dute berriro

Dagoeneko sumatzen zen desesperazioari irtenbidea eman zaio hasieran uste baino lehenago

AINHOA MUTUBERRIA

Azkenean ostatua ireki dute. Dagoeneko desesperatuak geunden hain aukera gutxi izateagatik. Gainera jendeak bere falta nabaritzen zuen goizetan eta bazkalandoan. Asteburutan berriz, mundu guztia Errandonean elkartzen zen eta tabernariak lan gehiegi zuten, asko kostatzen zitzaizkien kaso egitea. Orain ez dago arazorik. Zurrumurruak zeuden abendua arte ez zela izango ostatuaren subasta, baina jakina da, gauza ziuregon arte ezin dela hitzegi. Ikusteko dago zozketa eta segidan ostatua martxan hasten ote den.



Arrakasta ikaragarria du nekazalturismoak

Harrigarria da nolako arrakasta daukan agroturismoak Zubietan. Duela urte batzuk hasi ziren etxeak eta gelak alokatzen, eta

gero eta jende gehiago etortzen da. Moda hiritik herrietara joatea denez eta gure herria hain polita denez, normala da halako turismoa

egotea. Nahiz eta udazkena izan nahiko denbora ona egiten du eta bisitari onak ditugu. Hauetariko batzuk gainera, fijoak dira.

Behinpin taldeak antolatutako postre lehiaketa arrakastatsua

Hogeitazazpi errezeten artean Rosa Bertizenak irabazi zuen

TXEMA ALDABE

Doneztebeko ferietan, 'Behinpin' taldeak antolatutako etxeko postre lehiaketan hogeitazazpi lagunek parte hartu zuten, beraiek egindako postre goxoak aurkeztuz. Lehiaketa, Arkupeak jubilatuen elkartean egoitza izan zen. Epaileen ustez, aurkeztutako postreak kalitate handikoak ziren, baina lau sariak banatu behar eta hauek



Narbarteko Rosa Bertizek irabazi zuen etxeko postre lehiaketa

izan ziren aukeratuak: Lehen saria Rosa Bertizek irabazi zuen

'Udazkeneko enborra' izeneko errezetarekin. Bigarren saria Maria

Arregiren natazko tartak eskuratu zuen. Hirugarren saria Ana Albaren euskal 'Panilletek' irabazi zuen eta Doneztebeko taldearen gasna tartarentzat izan zen laugarren saria.

Lehiaketari bukaera emateko, hogeitazazpi postreak dastatzeko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren guziek

'Behinpin' taldeak bere aldetik jendearen partehartzea eskertu du.

ttipi-flash

Bertso afaria Donamarian

Abenduaren 10ean bertso afaria izanen da Donamarian Xebastian Lizaso eta Millan Telleria bertsolariarekin. Ondotik Gozategi anaiak trikitilariak arituko dira

Malerrekako Euskaltegian

larogei lagun ari dira euskara ikasten. Euskalduntzen mailan hiru talde osatu dira eta Alfabetatzen, EGA eta ikastaro teknikoetan bertze sei talde.

Añorbeko koral Iturenen

Abenduaren 8an, Nafarroako Gobernuak antolatutako Udazkeneko Jirabiraren barneko ekitaldietan Añorbeko Abesbatzak bere musika lana eskeinituko du Iturengo elizan eguerdiko 12,30etatik aitzine-ra, mezaren ondotik.

Aposturik ez

Patxi Mindegia eta Felix Etxeberrria aizkolarien arteko aposturik ez da egiten momentuz, sunbildarra ez baitzen zitara agertu, ezkonberria dagoelakotz. Zubietarrak maiatza bitarte itxaronen duela erran dio TTPI-TTAPARI.




Lau gazte Madrileko Auzitegi Nazionallean deklaratu zuten

Bertzalde, Zubialdeko bordako Isidro Bazterrikaren zerri granja saritua suertatu da Lleidako 'Porc D'or' sariketan

IBAN ISASI

Herriko lau gazte Madrileko Auzitegi Nazionalera joateko deitu zituen Baltasar Garzon epaileak azaroaren 17an. Bertan, zenbait galdera egin zizkien, guztiak Belen Azpiroz duela bortz edo sei hilabete atxilotua izan zen Ituren go alabaren ingurukoak.

Froga kaligrafikoak ere egin zizkieten Terexa Mikelarena, Joxe Mari Mikeo, Itziar Iparragirre eta Blanka Urrozi. Asanblada pare bat burutu zen Herriko



Zubialdeko bordako Isidro Bazterrikaren zerri granjak saria jaso du Lleidako Porc D'or sariketan

Argazkia: KARMELE

Etxeko ganbaran eta egitea proposatu zen, baina dirudienez, EA taldeak ez zuen ikusi horretarako premiarik.

Isidro Bazterrika saritua

Ameztiako Zubialdeko borda baserriko Isidro Bazterrika Katalunyako Generalitateak ematen duen 'Porc D'or' saria eskuratu zuen Lleidan azaroaren 19an bere baserriko zerri hazkuntza kalitatearengatik. Aipatu behar da Estatu osoko 28 azienda etxe aukeratu zituztela sari-keta honetan parte hartzeko.

AMAIUR ALTZARIATK

Puntaren puntan



Doneztebeko
Sarreran
© 45 04 00

Negura begira ez kezkatu.
Guk jarriko dugu zure sukaldea goxo-goxo egoteko
Ordaintzeko moldatuko gara



Bertso Paper lehiaketaren edizio berria martxan

Aurten Goizuetakoak ez ezik, beste herrietakoek ere parte hartzen ahal dute

ESTEBAN AROZENA

Bertso Paper lehiaketaren 5. edizioaren arauak eta sarien zerrenda kaleratu dira dagoeneko, baina aurten garrantziko aldaketa batekin; lehen herritarrei mugatua zegoen bezala, orain, eskualde guztira zabaltzen dela alegia. Beraz, Goizuetakoek gain, Leitza, Larraun, Araitza eta Ultzamakoek parte hartzeko aukera osoa izango dute edizio berri honetan.

OHOKO hirugarren mailako umeetatik hasi eta, adinaren arabera bost multzotan sailkatuko dira partaideak. Talde bakoitzaren lana



Sokatarakoek hasiera eman diote denboraldi berriari

Artxiboa

eta sarien berri hemen ematea luze joango denez, esan dezakegu, goian aipaturiko herri guztietan zabaldurik daudela lehiaketa honen xehetasunak ematen

dituen kartelak. Beraz, interesatua dagoenak erraz jakin dezake bakoitzari dagokion lana eta eskuratu dezakeen saria zein den.

Sokatira

Ohizko tokian eta orduan entrenatzen dute, eta baten batek taldean sartzeko gogorik balu, oso ongi hartuko omen dute.



Kanposantuko obrak bukatzeaz daude

Langabezia zeuden bi herritar aritu dira 4 hilabetez

JUANA M^a SAIZAR

Kanposantuko obrak bukatzeaz daude.

Hauen presupuestoa 8 milioikoa da. Haunditu egin dute, eskonbroak kenduz eta tokia irabaziz, paretak txukundu eta zuzen eginez. Sarrera ere egokituta dago eta harri politak agertu dira, han zegoen untze kendu eta gero. Gorpu gordailua ere berria egin dute. Sartu eta ezkerreko paretan 36 nitxo egin behar



Sartu eta ezkerreko paretan 36 nitxo egin behar dituzte hilerrian

Arg.: Juana Mari

dituzte eta herriko familiren batek erosi

nahi baditu, egitea gosta dena ordaindu

beharko dute, 60.000 pezeta inguru.

ttipi-flash

Umore Onak

abenduaren 1 In antolatutako duen Bazkideen Egunean elkartean bazkaldu nahi duenak, hurrengo igandea du azkeneko eguna elkarteko taulan dagoen zerrendan bere izena apuntatzeko.

Loteria

Umore Onak ez du aurten loteriarik banatuko bazkideen artean. Hala ere, aberasteko aukerarik ez zaie faltako bazkideei, komisiok 'decimo' batzuk hartu baititu.

Elkarri

giza mugimenduak 15.000 pta.ko dirulaguntza jasoko du udaletik. Laister burutuko dituen Bake Topaketan berri ematen zuten Elkarri dirulaguntzaren eskakizuna egitera koan.

ttipi-flash

Jostunen ikastaroa

Beste urte batez hasiera eman dio emakume talde batek EPAK antolatutako jostungintza ikastaroari. Asteaz aritzen dira ikasten, bi ordu terdi bakoitzean. Iaz bezala, Mari Carmen Rezola dute irakasle.

Sokatira taldea

Sokatarako taldeak Euskadiko txapelketan parte hartuko du hiru pisu ezberdinetan. Ea aurten ere indartsu segitzen duten.



Okile ezinduen tailerrak prentsaurrekoa eman zuen

Bestalde, Leitzako Intsumisioaren Aldeko Taldeak zenbait ekitaldi antimilitarista burutu ditu azaroan

JOSEBA AZPIROZ

Ezagutzera eman zen bezala, hilaren 11n, Okile ezinduen tailerreko prentsaurreko bat eman zuten, bere zaintzailea, gizarte langilea, zinegotzi, alkatea eta senide batekin batera. Bertara hurbildu ziren hogeita hamabost lagunek, Berako tailerrekoak ere baziren. Saioan zehar, jendearen partehartzea haundia izan zen. Esandakoak laburtuz, hauek dira aipatutako ideia garrantzitsuenak: Leitzakoa, Nafarroan den udal tailer bakarra dela; horrelako tailerrak izugarizko mesedea egiten diela ezinduei, harremanak, ardurak eta zeregina edukitzeko tresna direlako; jende gutxiak izan behar direla eta, ahal izanez gero, herrian bertan egon behar direla. Izan ere, garraioa edozeinentzat arazoa izan badaiteke ere, hauen-tzat larriagoa bihurtzen



Okile ezinduen tailerreko arduradunek esandakoaren arabera, Leitzakoa da Nafarroa osoan dagoen udal tailer bakarra

Argazkia: JOSEBA

delako. Hemendik aurrerako nahiak berriz, Lontxo eta Maitek adierazi zizkiguten: furgoneta bat irteerak egiteko, lantokiren batek tailerrean egiteko moduko lanaren bat ematea eta partidu politikoei hauteskuntarako propaganda sobretan sartzeko lana ematea, besteak beste. Gainera, ostiraleroko ferian hortentsiak sal-

tzen dituzte (1.200 pertzetatan). Okile elkar-tearen bazkide egin nahi baduzu (200 peza hilabetero) ezinduen familikoekin hitzegi eta informatuko zaituzte.

Intsumisioaren aldeko ekitaldiak

Leitzako Intsumisioaren Aldeko Taldeak (LIAT) zenbait

ekitaldi antimilitarista burutzituen azaroaren 18, 19 eta 20an. Kartzela, sakabanaketa eta errepresioa salatu, Gobernuak arazoari irtenbide politikoa emateko garaia dela adierazi eta intsumiso presoentzat askatasuna eskatuz, desobediencia zibilera deialdia egin zuten enkartelada, kotxe karabana, entzerona, kalejira, ekitaldi

antimilitarista, etabarrere...

Bestalde, azaroan Leitzako 19 gazte zozketatu zituen ejertzi-tuak soldaduska egiteko horrelako emaitzak emanez: 15 Mendebaldeko Pirineoko zonaldera (3 Iruña aldera, 1 Donostia aldera, 1 Gasteiz aldera), 2 Kantauriko zonaldera, 1 Canariasetara eta 1 Zeutara.

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun
20.000 irakurle

KRISTALDEGIA

eta **SAN MARCIAL**

ERAKUSKETA eta SALMENTA

☞ Eskaparateak

☞ Biselatuak

☞ Ispiluak

☞ Bidrierak

CIPRIANO LARRAÑAGA, 4 behea. IRUN

☎ 943-61 48 47 Tel. Mugikorra: 908-773275

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 510086
LEITZA



Nafarroako Egun erreibindikatioa abenduaren 3an ospatuko da

Egun ofizialari aurre egiteko Elizondon eta Amaiurren zenbait ekitaldi antolatu ditu ezker abertzaleak

JOSEBA IGARABIDE

Abenduaren 3an Elizondon ezker abertzaleak (HB, EMA, HA eta EB) Nafarroako egun erreibindikatioa ospatuko du.

Goizeko 11,30etan Amaiurren ekitaldi politikoa izanen da. Ordu berean hasita, Elizondon kalejirak izanen dira eguerdiko 1ak arte. Ordu horretan manifestazioa egingen da. 2,30etan herri bazkaria izanen da eta ondotik, arratsaldeko 3,30etan ekitaldi politikoa. 4etatik aitzinerajaialdia burutuko da (bertso-lariak, dantzariak, erraldoiak, jotarak, abeslariak, txaranga, gaiteroak, trikitixa...).

Kiwi uzta ona

Kiwi uzta ona izan da Baztanaldean. Kiwi Baztanek dagoeneko 250.000 eta 300.000 kilo artean bildu ditu. Kiwiaren kalitatea gainera, hagitz ona omen da eta ez dute arazorik espero dena saltzeko. Konpetentzia haundiena Italiako produztzaileekin ematen da, baina kalitatean hemengo kiwia nagusi omen da. Joan den urtean Kiwi Baztanetik erosi zutenek erperi-



Aureskua dantzatu zen San Martin eskolako aintzinaldean

Arg.: INZIARTE

San Martin eskolako frontoia Oronozko herriaren eskutara pasatu da

San Martin eskolako ikasle ohien urteroko bileran zenbait ekitaldi berezi izan dira aurretik. Alde batetik, Urrutia fundazioa omendu zen eta ikasketekiko frontoia herriarren eskutara igaro zen. Horretaz gain,

Enrique Urrutia, fundazioko lehendakariari makil bat eman zitzaion, herriko semeorde izendatzearekin batera.

Almandozko Beola jatetxean egindako bazkarira 160 lagun bildu ziren. Ekitaldian,

Martin Urrutia, San Martin eskolako fundatzailearen ondorengoak egon ziren.

Oronozko bizilagunak pozik agertu dira, hemendik aitzinera behar beharrezkoa zuten instalazioa erabili ahal izanen baitute.

katzeko asmoa dute.

Balkoiak...

ongi apainduak edukitzegatik hamarna mila pezeta jaso dute Elizondoko Peruenea, Errotazaña, Villamaritxu eta Ariz-etxea,

Azpilketako Agerrea eta Iribarnea, Arraiozko Xuntoneak, Almandozko Beitiko-etxea, Anizko Jauregia, Arizkongo Ugaldenea eta Toki-eder, Bozateko Kordoba, Amaiurko

Makitenea, Zigako Etxenikea, Berroetako Iturraldea, Lekarozko Iparralde, Erratzuko Etxebeltzea, Iruritako Goiz-eder, Oronozko Santonea eta Gartzaingo Apalorrea etxeek.

ttipi-flash

❖ 1937ko kintoen besta

1937an jaiotako Baztan-Bidasoa inguruko kintoen besta burutuko da abenduaren 3an Oronozen. Bazkaria Urgain jatetxean izanen dute bainan aitzinetik hildako kintoen aldeko meza izanen da 12etan Oronozen bertan.

❖ Azpilketan

elkartasuneko besta ospatu zuten azaroaren 27an Baztan eta Tuterako dantzariak. Ondotik, bazkaria izan zuten Arizkongo soziedadean.

❖ Bertso afaria Antxitonean

Baztango ikastolaren hogeitabortzgarren urteurrena ospatuz bertso afaria egingen da Antxitonea trinketean larunbat honetan (abenduak 2). Bertan Bittor Elizagoien, Angel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña eta Baztango bertso eskolako Biotz eta Maribeltza Unanua ahizpak arituko dira.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



Larunbat honetan ospatuko da San Andres besta Zuraurren

Baselizaren inguruan egingen den bazkarian eta bazkalondoan ez da musikarik faltatuko

PABLO MENDIBURU

Urtero ospatzen den San Andreseko besta abenduaren 3an izanen da aurten.

Zigako Zuraurre auzoan dagoen baselizaren patroia delako besta egiten da, bazkaria eta bazkalondoan musika izanen delarik.

Eskola berriak

Bertzalde, Ziga eta Almandozko eskola berriak martxan daude. Hezkuntz erreforma dela eta, seigarren mailara arte herrian bertan ikasiko dute haurrek, eta horregatik bi eskola berri egin dituzte lehengo goitiko aldean. Bai Zigan baita Almandozen ere bi maisuk lan egiten dute aurten.



Arg.: ONDIKOL

Elizondoko Antxitonea trinketeak 100. urteurrena ospatu zuen azaroaren 20an

1894ean Isidro Iribarren eta Josefa Iturralde senar-emazteek eraiki zutenetik hainbat kirol eta kultur ekitaldi ikusi ahal izan dira Antxitonean.

Gehien bat pilota partiduak jokatu dira, baina mutildantza eskola ere izan da Mauricio Elizalderen eskutik. Zenbait urtetan bertso saioak antolatu dira,

Mariano Izeta gai-jar-tzaile zela. 1936ko Nafarroako txapelketaren finala ere Antxitonean burutu zen eta Iruritako Juan Felix Iriarte izan zen txapelduna.

ttipi-flash

Belateko tuneleko

lanak aitzinera doaz. Aipatu behar Marin zubitik ez pasatzeko egin behar duten biaduktoaren lehen zutabea goratu dutela dagoeneko. Gainerakoan, lohiarekin nahiko arazo sortzen ari da.

Berroetan

urteroko saneamendu eta uraren kuotak ordaindu behar zizutzen azaroaren 25a baino lehen.

Basaburuako

herri kirol taldeak afari bat egin zuen azaroaren 19an denboraldia ongi bukatzeko.

Lehendabiziko bildotsak

Hasiak dira dagoeneko lehendabiziko bildotsak, oraindik guti baldin badira ere. Halere, Baztanetik Ordiziaraino eraman behar izan dituzte saltzeko.

Eskisaro jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ ERREBELATZEN
ditugu "FUJI" kalitatearekin



EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

IA 100 URTE KALITATEA ETA
PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25



ZURE
ARGAZKIAK
ORDU BATEAN
EGITEN DITUGU

Gida 95



ttipi-ttapa

Gida Komertziala

Informazioa:
☎ 631188



'Telethon' myopathia ikerlanen sustengatze ekintza abendoaren 3an

Herriaren inguruan ibiladia, jokoak, aperitifa eta kantaldia izanen dira eguneko ekitaldi ospetsuenak

MIXEL ETA JACQUELINE

'Telethon' myopathiari buruzko ikerlanen sustengatze ekintza abendoaren 2 eta 3an iraganen da. Saran egunik ospetsuena abendoaren 2 eta 3an iraganen da. Saran egunik ospetsuena abendoaren 3a izanen da. Goizean hurrei dei egingen da herriaren inguruan ibilaldi baten egiteko. Arratsaldean 3ak eta 6ak artean polikiroldegian nahi duenak parte hartu ahaldu edozoin jokotan. Ondotik aperitifa hartzeko eta jateko aukera izanen da. Arratsean 9etan elizan kantaldi bat izanen da. Asko kantarietorriko dira eta dohainik arituko dira, orduan oraidanik es-



Zuhaitzen landatzeko 100.000 liberako gastua onhartu da

kertzen ditugu.

Egun hunen helburua da herriar gehien batek parte hartzea ekitaldietan eta dirua biltzea ikerlariak lanak baldintza hobereetan jarrai ditzaten myopa-

thiari buru egiteko.

Dendari ikasgaiak

Ikasgai hauek azila geroztik hasiak dira eta ospitale ohian iragaiten dira astelehen arratsal-

detan. Jadanik hogoi bat emaztek jarraitzen dituzte ikasgai hauen xehetasunak.

Luberriaga andereak kudeatu ditu kutso horiek. Hunen antolakuntza Herriko

Etxearen gain da. Oihanaren zaintzea

Herriko kontseiluak onhartu du 100.000 liberen gastua egitea zuhaitzen landatzeko. Iduriz 40.000 liberen diru laguntza jin beharra litaike Ingurumenaren ministeritzatik.

Jakin dugu...

Bidartea saltzeko da eta hunen kaperak zituena arlozak atera dituzte jabeek Doniban Lohitzune alderat eramateko.

Bainan izenpetze ekintza bat abiatu da Lehenbizkai auzoan arlozen gibelerat berekararazteko.

Geroak erakustera emanen du arlozak zer hinkatu diren...



Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • © 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA
BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile
baimendua



BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

HERRIKO ETXeko EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

SASKI
OSTATUA
LESAKA

Eskola eta mediku kontsultaren garbiketarako lehiaketa zabaltu da

Udalaren elektrizidade banaketa, bertzalde, kilowatio bakoitzeko pezeta bat garestia izanen da hemendik aitzinerat

ALIZIA OLAIZOLA

Eskola eta mediku-aren kontsulta garbitzeko lehiaketa zabaltu berri du Urdazubiko Udalak. Hasierako prezioa 300.000 pta.koa da, kontutan hartuz urteko 200 ordu beharko direla eskola eta gimnasioa garbitzeko eta 100 ordu kontsulta garbitzeko. Orduko 750 pta. ordainduko da (225.000 pezeta guztira) eta bertze 75.000 pezetak materialea erosteko izanen dira. Asegurua langileak ordaindu beharko du.



Artzainen sasoina da eta hasiak dira ardi lanetan. Etxelekua gasnategian urria artio aritu dira gasnak egiten eta orain berriz hasiko dira.

ttipi-flash

❖ Elektrizitate zerbitzua

Kilowatio bakoitzaren prezioa 16 pezetakoa izanen da, pezetakoa bat garestia.

❖ Egin mus txapelketa

Bikote andana bat bildu zen Indianoabaitako kanporaketan. Irabazleak Andres Diharassarry eta Angel Ben-goetxea izan ziren. Bigarrenak Cecilio Sansiñena eta Iñaki Sarratea.

Ikastaro pila antolatu ditu 'Akelarre' elkarteak

Egunero bada bakarren bat eta horien artean bereziena, 'Tai-chi-chuan' edo txinatar soinketakoa

KORO ETA MARGARI

Oraindik aintzinaez da denbora galtzeko aitzakirik, 'Akelarre' elkarteak ikastaro pila martxan jarri baititu astero egun guztietan. Hauexek dira:

- Astelehen eta astearte (7etatik 10-etara) Hospitalean, moble berriztatzea.

- Asteazkenetan (8etatik 9etara) frontonean, Tai-chi-chuan (txinatar soinketa).

- Ortzegunetan (8etatik 9etara) eskolatan gaita eta atabala.

- Ortzilaretan (9etatik 10etara) frontonean



Zugarramurdiarrek egunero hartzen ahal dute parte ikastaroren batean

Artxiboa

euskal dantzak (hel-duentzat).

- Larunbatetan (6etatik 7etara) fronto-

nean euskal dantzak (haurrentzat).

Egun hauetan hasi berriak direnez, azken momentuan norbait gehiago animatzen bada, hurbil dadila.

Frontoiaren erabilera mugatua

Bertzalde, tai-chi-chuan eta euskal dantzen ikastaroak direla eta Udalak jakinarazi du ezin izanen dela frontona erabili egun eta ordu hauetan:

- Asteazkenetan, 7etatik 9etara.

- Ortzilaretan, 9etatik 10etara.

- Larunbatan, 6etatik 7etara.

EZKONTZAK

M^a Jose Apeztegia eta **Carmelo Aioroa**, Aurtizkoak, azaroaren 15ean.
Marga Erdozain Azpilkueta eta **Txema Aldabe Telletxea**, Lizarra eta Urrozkoa, urriaren 24an.
Jose Garaiburu Etxeberria eta **M^a Lourdes Ramos Santos**, Tolosa eta Lesakakoa, azaroaren 12an.

JAIOTZAK

Mikel Salaberria Mutuberria, Goizuetakoa, azaroaren 7an.
Andoni Goñi Mitxelena, Elizondokoa, azaroaren 6an.
Jon Pikabea Larralde, Lesakakoa, azaroaren 8an.

HERIOTZAK

Balbina Yabar Etxarri, Elizondokoa, azaroaren 7an, 74 urte.
Isabel Iribarren Dorregarai, Arizkungoa, azaroaren 8an, 84 urte.
Francisco Etxenike Erramuzpe, Elizondokoa, azaroaren 12an, 45 urte.
Clara Arraztoa Inda, Iruritakoa, azaroaren 15ean, 90 urte.
Pio Retegi Zubieta, Almandozkoa, azaroaren 18an, 73 urte.
Cipriano Rekarte Elizalde, Erratzukoa, azaroaren 19an, 91 urte.
Maria Barberena Aleman, Arraiozkoa, abenduaren 21ean, 76 urte.
Natividad Oteiza Oteiza, NARBARTEKO, urriaren 28an, 79 urte.
Esteban Bergara, Arantzakoa, azaroaren 20an, 71 urte.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
 2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
 4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat,
 2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
 dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
 aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,
 bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,
 hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.
 Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial

**LUIS
 MARIANO**
 Irun

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi	
zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitala	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264/621106
Anbulantziak	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka	
(larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe	
(larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe	637404
Elizondo	580924
Lesaka.....	637404
Suhiltzaileak	
Oronotz-Mugaire	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
Aberiak:	
Iberduero	450335/450336

Hirutanhogeita hamar azienda plazaratu ziren Lesakako ferietan

Eguraldi ederrak lagunduta jendetza haundia bildu zen

Azaroaren 24ean ospatu ziren Lesakan Bortzirietako feriak, 1499az geroztik egiten den besta berexia. Aurtan ere jende aunitz bildu zen Lesakan eta baserriar dexente izan ziren bere aziendak plazaratzera animatu zirenak, guztira 70 abere egon baitziren ikusgai.

Lehiaketari dago-kionez, zaltaberetan 39 zaldikoren artean Ur-dinbaita baserriko Jose Mari Anduezak eraman zuen lehen saria. Bigarrena Jose Antonio Anduezak eta hirugarrena Zulangoroko Martin Etxabidek.

Betaberetan, holan-desarra, Biurgar-raiko Salvador Goiak eskuratu zuen lehen saria, Zulangoroko Prudencio Etxabidek bigarrena eta Abaske-neako Angel M^a Al-tzugarraiek hirugarrena. Suizetan, Makukobobordako Luis Olae-txeak eraman zituen lehen eta hirugarren saria eta Alttonbordako Martin Zoaiak biga-



Abere ederrak ikusi ziren feria egunean Lesakako plazan

rrrena. Haragitako behietan Berreuko Juan Antonio Priorentzat izan ziren hiru lehen-dabiziko sariak.

Azkenik, bortz aha-re aurkeztu ziren, mila duroko lehen saria Te-lletxekobordako Laza-ro Mujikak eskuratu.

Bigarrena Blas Goi-zuetarentzat izan zen eta hirugarrena Iri-burutako Carmelo Laraldek etxeratu zuen.


Janariak artisau moduan produzitzen dituzten enpresek elkartea sortu dute

Nafarroako Janari Produktoreen Elkartea ofizialki presentatu zen Iruñan azaroaren 11an. Elkarre honetan, janariak modu artisau baten produzitzen dituzten hamabortz enpresa ttiki bildu dira,

horietatik hiru zona-koak. Lekarozko Laraldea sagardotegia, Sunbillako Lizun gaz-tategia eta Berako Errotazar (ahate pro-duktoak) dira eskualdean elkarteko kide egin direnak.

Jose Mari Hualde, elkarteko lehendakariak erran zuenez, lehen helburua produktaren kalitate ona lortzea da. Horretarako zenbait baldintza bete behar dituzte enpresa ttiki hauek.

Gizonezkoen Moda



Miguel Angel Cuarlango Gury

Mendelu 53 • ☎ (943) 64 18 41 • 20280 HONDARRIBIA

Olatz
Relojería
Joyería

**GARAI ZAILETARA
EGOKITUTAKO PREZIOAK**

Bisita gaitzazu
eta ikusiko duzu.

Larunbatetan goiz-arratsaldez irekia
SAN PEDRO, 3 • Hondarribia
☎ (943) 64 56 78

Gipuzkoarrak nagusi Doneztebeko ferietako aizkora apostu ikusgarrian


Mikel Mindegia eta Floren Nazabalek osatutako bikoteak eman zion puntu bakarra Nafarroako taldeari

Doneztebeko feria egunean egindako aizkol apostuan talde gipuzkoarra (Arrospide, Olasagasti eta Erasunek osatutakoa) nagusitu zitzaion nafarrari (Mindegia, Larretxea eta Nazabal).

Doneztebeko frontoia gainezka ageri zen, 500 lagun inguru bildu baitziren feria eguna probetuz eta apostu ederra ikusi ahal izan zuten.

Gipuzkoarrak hirukotea

Lehenbiziko proban hirukoteak aritu ziren elkarren kontra, 60 ontzako bina enbor moz-tuz. Proba berdindua izan zen eta azken enborrean Mindegia 10 segunduko abantailarekin hasi bazen ere, Olasagasti nagusitu zen azkenean. Australiar



Gipuzkoako hirukoteak puntuagarriak ziren hiru probetatik bi irabazi zituen.

Arg.: D. Noticias

erako proba (nork lehenago ebaki 54 on-

tzako enbor bat) ez zen puntuagarria. Honetan

Arrospidek irabazi zuen 1' 4"ko denbora-

rekin, Larretxea eta Nazabal nafarren aitzinetik.

Aurrez aurreko norgehiagokan Larretxea eta Olasagasti aritu ziren, bakoitzak 60 pulgadako enborrak ebakiz. Hemen ere nahiko errex irabazi zuen gipuzkoarrak, azkenean 46 segundutako diferentzia pilatuz.

Nafarren garaipena bikotea

Azken proba arte esperatu behar izan zen nafarren garaipen bat ikusteko eta hau binakako proban etorri zen. Nafarren aldetik Nazabal eta Mindegia aritu ziren, Arrospide eta Erasunen kontra. Zortzi enbor zituzten mozteko eta hirugarrenarako dextenteko alde hartu zuten nafarrek.

PILOTA

Antxitonea trinketeak 100. urtemuga ospatu zuen azaroaren 20an

Elizondoko Antxitonea trinketeak bere 100. urtemuga ospatu zuen azaroaren 20an. Horretarako, pilota partiduen ondotik bazkari eder baten inguruan bildu zen hainbat jende.

Mendeurrenaren Koparen finala jokatu zen lehendabiziko. Paleta txapelketa honetan Alejandro Galarregi eta Manuel 'Xoko' Goñik irabazi zioten Luis Mari

Iturriria eta Kiko Jaenek osatutako bikoteari, 40-36. Modu honetan, Elbeteko Gallarregi zazpi aldiz izan da bikotekako txapel-dun eta bertze bortz alditan azpitxapeldun, Txatxin Leizak zuen marka hobetuz.

Ondotik, eskuz binakako partidua ikusi zen, Iparraldeko Intxauspe-Biscoubi eta Karrikart I-Karrikart II.aren artean. Lehen-

bizikoeak 40-35 irabazi zuten. Domingo Etxandi erratzuarra erretiratu zenetik ez da eskuz jokatzen Elizondoko trinketea eta horregatik Iparraldetik ekarri behar izan zituzten pilotariak.

Bazkalondotik, Pello Urtasun, Euskal Pilota Federazioko lehendakariak plaka bat oparitu zuen Antxitonea trinketearen mendeurrena gogoratuz.

Hamabostaldiko jokaldiak



Inaxio Errandonea Alkaigako pilotaria.

Larunbat honetan lau terdikotxapelketaren finala jokatu behar zuen Eugiren kontra. Emaiza ez badakigu ere, ez da edonolako marka atzelari honek egindakoa. Eta hori hamarretik txarrena zela erraten zutela!



Gure Txokoa futbol talde nagusia.


Jokatu dituzten hamabi partiduetatik garaipen bakarra eta hameka galdu dituzte, dagoeneko hamar negatibo pilatuz. Azken postuan daude, baina oraindik liga luzea da eta altza burua!

Patxi Mindegiaren desafioa ez zuen hartu Felix Etxeberriak

Zubietarrak ez du etsitu oraingo ezetzarekin eta maiatza arte itxaronen omen du

Azaroaren 12an Doneztebeko Belarra kafetegian bildu behar zuten baina sunbildarra ez zen agertu. Dena den, Felixek Xorroxinen bitartez azaldu zuen ez zuela azaltzeko asmorik ezkonberria zegoelakotz.

Bien arteko apostua egiteko nahia, hasiera batean Patxi eta Senosiain arteko apostua jokatu ondotik bota zion Felixek Patxiri. Honek ezetz erraz zion, gaizki zegoelako, baina aurrein eginen zutela erranez. Hitza bete nahian Patxi izan da



desafioa bota duena.

Patxi ez du etsitu oriangoezetzarekin eta berak dioenez maiatza arte itxaronen du: "Ez dut nahi neure burua Felixekin neurtu gabe gelditzea eta maiatza baino lehen ez bada etortzen heldu den negua arte itxaronen dio". Honetaz gain, lana erdi aukeran joan den dela bai neurrian baita kopuruan ere dio, "nere asmoa 20 kanardiko moztea bada ere". Azkenik, Felixekin ez bada bertze aikolari batekin jokatu du seguraski.

Bote pronto

Negurako kirol eskeintza

zabala agertu du Elizondoko Bidasoa Kultur Zerbitzuak. Abendutik hasi eta apirilera lehen astea arte, kirol ezberdinak prezio onean egiteko aukera izanen da.

Street-ball txapelketa

Elizondon jokaturako 'Street-ball' txapelketaren finala Elizondoko 'Hiru Behinpein' taldeak (Urteaga, Iriberri, Biguria eta Amiano) irabazi zion Lesakako 'Formula 44'ri (Telletxea, Olaetxea, Oizartabal eta Bango), 29-20ko emaitzarekin. Zortzi talde aurkeztu ziren.



NEGUA 94-95



(%10eko deskontua "Club Bidasoa")

ABENDUA

Larunbata 10	Parapente ikastaroa (1. urratsa)	Leitzarane
Igandea 11	Piragua ikastaroa	Leitzarane
Igandea 18	Baztan historikoa ezagutu	Baztanen
26tik 30era	'Ski Alpino' ikastaroa	Kandantxun

Materiala, Monitorea, Asegurua	2.500 pzta/pax
Materiala, monitorea, aseguru	2.500 pzta/pax
Transportea, gidaria, bisitak	1.500 pzta/pax
Trans., monit., aterpea, pentsio e., 5 Forfaita	35.000 pzta/pax

URTARRILA

4tik 8ra	'Fondo Ski' ikastaroa	Iratin
Igandea 15	Zaldiz trabesia 5 ordu	Bertiz-Txaruta-Bertiz
Igandea 22	Ski alpinoa	Aretten
Larunbata 28	Fondo Skia	Iratin
Igandea 29	Ski Alpinoa	Aretten

Trans., monit., refugio txalet, Forfaita	15.500 pzta/pax
Materiala, monitorea, gidaria	5.000 pzta/pax
Transportea, Forfaita, monitorea-gidaria	4.000 pzta/pax
Transportea, Forfaita, monitorea-gidaria	2.200 pzta/pax
Transportea, Forfaita, monitorea-gidaria	4.000 pzta/pax

OTSAILA

4-5 asteburua	Fondo Skia	Belaguan
Igandea 12	Ski Alpinoa	Aretten
Igandea 19	Fondo Skia	Iratin
Igandea 19	Zaldiz trabesia GR 11	Bera-Elizondo
Larunbata 25	Fondo Skia	Iratin
Igandea 26	Ski alpinoa	Aretten

Transp., aterpea, gosaria, Forfaita, gidaria	4.500 pzta/pax
Transportea, Forfaita, monitorea-gidaria	4.000 pzta/pax
Transportea, Forfaita, monitorea-gidaria	2.200 pzta/pax
Materiala, monitorea, gidaria	7.000 pzta/pax
Transportea, Forfaita, monitorea-gidaria	2.200 pzta/pax
Transportea, Forfaita, monitorea-gidaria	4.000 pzta/pax

MARTXOA

Igandea 5	Mountain bike trabesia	Bardenas Reales
11-12 astebur	Fondo skia	Belaguan
Igandea 19	Ski alpinoa	Aretten
25-26 astebur	Zaldiz trabesia 2 egun	Bertiz-Saioa-Bertiz

Transportea, gidaria, aseguru	2.500 pzta/pax
Trans., aterpea, gosaria, Forfaita, gidaria	4.500 pzta/pax
Transportea, Forfaita, monitor-gidaria	4.000 pzta/pax
Materiala, refugio, gidaria, aseguru	8.500 pzta/pax

APIRILA

Igandea 2	Kainoen jeitsiera	Oloron
-----------	-------------------	--------

Materiala, transportea, monitor-gidaria	4.000 pzta/pax
---	----------------

Bidasoa Kultur Zerbitzuak S.L. • ELIZONDO • Tfnoak: (948) 580490 - 592322

AGENDA EGUNEZ EGUN

ZINEA

LEITZA

- **Abenduak 2**
'4 bodas y 1 funeral'.
- **Abenduak 4**
'4 bodas y 1 funeral'
eta 'La vuelta a casa'.
- **Abenduak 9**
'Speed'.
- **Abenduak 11**
'El alucinante viaje...'
eta 'Speed'.

DONEZTEBE

- **Abenduak 3-4**
'El informe Pelicano'
- **Abenduak 7-8**
'Un mundo perfecto'
- **Abenduak 10-11**
'El cliente'

BERTSOAK

ELIZONDO

- **Abenduaren 2an**
bertso afaria Antxiton-
nean Elizagoien,
Peñagarikano, Egaña
eta Unanua Ahizpak.

DONAMARIA

- **Abenduaren 10ean**
bertso afaria Lizaso eta
Telleria bertsolariekin.
Ondotik, Gozategi
anaiak trikitilariak

GUARDIAKO BOTIKAK

- **Azaroaren 28tik**
abenduaren 4ra
Lesaka Doneztebe,
Elizondo (Lezaun) eta
Goizueta.
- **Abenduaren 5etik**
11ra Bera, Sunbilla,
Elizondo (Iturralde),
Leitza eta Goizueta.
- **Abenduaren 12tik**
18ra Etxalar, Ituren,
Irurita eta Goizueta.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Udazkeneko enborra

Osagaiak

Bizkotxoa egiteko

• 5 arraultze • 125 gr. irin • 125 gr. azukre •

Esnegaina egiteko

• 3/4 litro esnegain irabiatu edo batitzeko • 125 gr. azukre • azukrerik gabeko kakao bi goilarakada •

Bizkotxoa prestatzeko

Bortz xuringoak irabiatu 'punto de nieve' lortu arte. Azukrea

gehitu eta segi batitzen, gorringoak banan banan botaz. Azkenik iragazkitik pasatutako irina gehitu eta kontuz nahasi. Labeko bandeja gurinez eta irinez igurtzita, beratarara oreka bota, ongi zabalduz. Aitzinetik berotutako labean sartu, 180 gradutara.

Esnegaina

Esnegain litro erdia eta hiru azukre goilarakada irabiatu edo batitu eta



Rosa BERTIZ

•NARBARTE•

Malerrekako Postre
Lehiaketaren irabazlea
(94/11/18an)

bizkotxoan zabaldu eta biribilkatu. Gelditzen den gaina kakaoarekin eta falta den azukrearekin batitu eta bi esnegain hauekin apaindu bizkotxo.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 5.400 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 144 pzta/kilo
- **Zerramak**: 110 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanakal
Extra 600
1.koa 580
2.koa 550

Urruxak: Pzta/Kg. Kanakal

- Extra 610
- 1.koa 590
- 2.koa 560
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak 23.000 eta idixkoak 30-38.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 38-42.000 eta idixkoak 50-55.000 pzta.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 430 Pzta./Kg. Kanakal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanakal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,

ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoa** 930.
- **Udareondoa** 930 pta.
- **Gereziondoa** 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.
- **Valentziar tipula** zient. 250.
- **Letxuga** zientoa 400 pta.
- **Azelga** zientoa 400 pta.
- **Pepino** sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91



KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



Etxebizitzaren erosketa

Teorian, biztanle guztiok etxebizitza egokia izateko eskubidea dugu eta administrazio publikoak behar-tuak daude eskubide hori betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeri. Baina, teoria eta errealitatearen arteko aldea handia da, kontsumitzaileon eskubideak, batez ere arrazoi ekonomikoen mende baitaude. Aipagarria da Iratxe Kontsumitzaileen Elkartean herrietako bulegoetan hartzen ditugun keja gehienak etxebizitzari buruzkoak direla. Etxebizitza bat erosteko gauza batzuk kontutan hartu behar dira

- Etxebizitza erostekoan hiru bide nagusi daude: 'planoaren gain', 'egina' edo 'bigarren eskukoa'. Kasu bakoitzean gauza ezberdinak hartu behar dira kontutan.
- Kontratua sinatu baino lehen, joan Ondasunen Erregistroa edo 'Registro de propiedad' delakora eta begiratu ea saltzailea benetazko nagusia den eta etxebizitza horrek beregain zer-ga edo hipotekarik duen.
- Kontuz aurreratzin dugun

Mikel Bezunartea 'Iratxe' Nafarroako Kontsumitzaileen Elkartean Elizondoko eta Leizandituen bulegoetan aritzen da lanean.



diruarekin. Nahiz eta saltzaileak kontrakoa erran, 1968ko legeak dioenez banku edo aurrezki kutxa batean eta kontratu berezi baten bidez egin behar da ordainketa.

- Etxebizitza erostekoan, erne egon beharko dugu ematen diren laguntzekin; batez ere Babes Ofizialekoekin. "Protección Oficial" edo Babes Ofizialeko etxebizitza batek abantaila hauek ditu, berteak berte:

- Ordaintzen den topea, Gobernuak erabakitzen du. Beraz, merkeagoa da.
- Erosleak irabazten duen diruaren arabera, eskuratu daitezke prestamo, dirulaguntza, exenzio eta bonifikazioak.

- Kontratua sinatzerakoan, kontuz ibili. Izan ere, sinatutakoa da legearen aurrean balio duen bakarra. Haste-ko, hauek dira kontratuak izan behar dituen ezinbesteko puntuak:

- Saltzaile eta eroslearen datuaz gain, etxebizitzaren deskribapena.
 - Etxebizitzaren prezio osoa eta interesak gehituz ordaindu beharko duguna.
 - Kontratua betetzen ez badugu, klausula penalak.
 - Saltzaileak onartzen dituen gastu guztiak.
- Eta noski, kontutan hartu saltzailearen eta eroslearen betebeharrak ere.

MIKEL BEZUNARTEA

IRATXE KONTSUMITZAILE ELKARTEA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopanak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

AGENDA EGUNEZ EGUN

KANTALDIAK

LESAKA

Abenduaren 1ean

Kattun, arratseko 8,30etan Jabier Muguruzak 'Boza barruan' diskaren aurkezpena egingen du.

Abenduaren 5ean

Kattun, gaueko 10etan 'Trio Kalabera Quartet' taldea.

ITUREN

Abenduaren 8an

Elizan, eguerdiko 12,30etatik aitzinera Añorbeo Abesbatza Udazkeneko Jira Bira kanpainaren barnean.

NAFARROAREN EGUN ERREIBINDIKATIBOA

ELIZONDO

Abenduaren 3an

goizez kalejira eta manifestazioa. Bazkariaren ondotik, jaialdia. Amaiurren, goizez, ekitaldi politikoa.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

DONEZTEBE. Pisua salgai baratze eta bajerarekin. Interesatuok deitu 7etatik 9etara. ☎ 635097.

BERA. Pisu bat alokatu nahi nuke. ☎ 630551.

LEGASA. Pisu amueblatua alokatzen da. ☎ 943-614735.

ZIGA. Etxea salgai. Hiru planta, bakoitza 65m²koa. ☎ 580762 (eguerditan).

BERA. 60 m²ko lokala alokatzeko Kanttonberri karrikan. ☎ 630313.

BERA. Bajera bat salgai Agerra auzoan. ☎ 630821.

DENETARIK

Sukalde kalefaktora salgai. 'Lacunza' markakoa da. ☎ 637883.

'Bolillo' enkajeak egiten ikasteko klaseak ematen ditut. Deitu 5etatik 8etara. ☎ 630680.

Gitarra eta baju klaseak ematen dira. ☎ 630217.

Irakasle tituluduna eta

EGArekin, urte osoan Beran zein Lesakan klase partikularrak emateko prest (euskara, OHO, REM, frantsesa...). ☎ 630182-637839 (Klarisa).

Ezkontza soinekoa salgai. Xuria, 42-44 neurrikoa. Udakoa. ☎ 610858.

Flauta travesera salgai, zilar koloreko muturrarekin eta egoera onean. ☎ 637787.

Koneju edo untzien gorotza nahi izanez gero, debalde emanen dut. ☎ 450595.

Neska behar da Iruñean pisu bat osatzeko. ☎ 581177. Deitu asteburuetan.

Mobiletan karneta galdu dut Etxalar edo Lesakan. Aurkitu duenak 635041 era deitu (Javier).

Etxeko erreformak direla eta, 5 berogailu elektriko eta gasezko sukalde eta kalentadorea salgai. Banaka edo denak batera, prezio onean. ☎ 610794 edo 510204.

Sukalde kalefaktora salgai. 'Hergon' markakoa da. ☎ 631380.

IBILGAILUAK

Mobileta salgai. ☎ 630733.

Volvo 440 1.8i kotxe berri-berria salgai, SS-AP matrikuladuna eta 20.000 kilometro besterik ez ditu eginak. (943) 625728.

Lada Niva kotxea. NA-AD matrikuladuna salgai. 23.000 km, oso egoera onean, pintatu berria eta extrakin. ☎ (943) 276709 (arratsetan).

Talbot Horizon 1.5 beltza salgai. Aleazioko lllantak ditu. 150.000 Pta. ☎ 635101.

Renault 11 NA-N salgai. Prezio onean. ☎ 451596.

Iveco Daily 30.8 furgoneta salgai. NA-AH. 1.650.000 Pta. ☎ 268343-510500.

Seat 600 salgai. Merkea eta ITVa pasatua. ☎ 510459 (7etatik aurrera).

LANA

Pelukera tituluduna eta esperientziarekin lan bila dabil. ☎ 450322.

45 urteko emakumea naiz eta amona eta attona zaharrekin lana eginen nuke beren etxeetan, Bera edo Lesakan. ☎ 637011 (goizeko 8etatik 3ak arte).

20 urteko neska dendan, haurrak zaintzen edo taberna batean lan eginen luke. ☎ 450356.

AZIENDAK

Bi asto eder beren umeei salgai Saldiasen. ☎ 615016.

Astemea, urtebetekoa salgai. ☎ 615016.

Bi behi salgai. Bata hiru urtekoa eta 6 hilabete terdi ernari dagoena eta bertzea 7 urtekoa, bi hilabete terdi eranari dagoena. Josetxo Etxegarai. Lesakako Pilotaleku ondoan bizi naiz.

Mando bat salgai. ☎ 635186.

'Pastor Aleman' arrazako zakurkume sortuberriak salgai. ☎ 450595.

Baserriko oilaskoak salgai. ☎ 387052.

AGURRAK

Lesakako Julianeri: zorianak zure 17. urtebetetzeagatik (azaroak 30). Oso ongi pasatzea espero dut, baina poliki ibili. A.T.P.

Oitzko Javier A.ri zorionak abenduaren 3an. Ongi pasazazu egun berezi hau asko maitatzen eta inoiz atzenduko ez zaituzten zure inguruan daudenekin. Etxeko familia.

Nik zaintzen dudana Alejandra G.A.ri. Askok maite zaitut eta ez zaitut inoiz ahaztuko. Nekane.

Narbarteko Katixari: Zorionak azaroaren 25ean Berako lagunaren partez.

Etxalarko bi alabatxoentzat: Kasu eman otsoekin, batez ere bi hankakoeekin. Attato.



ZALAIN MOTOR

MEKANIKA • KARROZERIA • ELEKTRIZITATEA • GRUA
© eta Faxe 63 11 57 • Telefono mugikorra (908) 77 80 23
• BERA •



**Transit Berria.
Liderra.**

- Airbag bikoitza (bere mailakoetan bakarra).
- Itxiera zentralizatuak.
- Direktzio asistituaz hornitua.
- Leio altxatzeko elektrikoak.
- Haize egokitua aitzinean eta gibelean.
- 12m³ arteko kapazitatea kargarako.



Transit Berria zure behar guzietara egokitzen da. Kontsultaiguzu.
Zalain Motor-ek preziorik hoberenean eskaintzen dizkizu ibilgailu industrial guztiak.

Aukera paregabeara



Edozein autorendako
GURPILAK

5.615 pezetatik
aitzinerat
VA
barne

ETA GAINERAT...
DOHAINIK

PARATU, BERDINDU ETA
NIBELAK IKUSKATU

BEREHALAXEKO HARRERA, AITZINETIKO ESKAERARIK GABI
ORDU BETEAN BAINO FITEAGO

Abenduaren 31ra arteko eskeintza

CONTINENTAL

NEURRIAK 145/70/13	NEURRIAK 155/70/13	NEURRIAK 165/70/13	NEURRIAK 175/70/13	NEURRIAK 185/65/14
5.615	6.270	7.040	7.915	9.465

PEDRO GARMENDIA, S.A.
RENAULT • ELIZONDO

Frantziarako Bidea, 57. Km. Tf. 58 04 31/6

Zure mahaiaz
presumitzeko eta...



Portzelanazko Baxera Italiarra:

275.000 pta. 3 hilabeterako.

375.000 pta. 2 hilabeterako.

Nomina edo pentsioa helbideratua izanda:

250.000 pta. 3 hilabeterako.

350.000 pta. 2 hilabeterako.

Manacor Perla Jokua:

175.000 pta. 2 hilabeterako.

Nomina edo pentsio helbideratua izanda:

150.000 pta. 2 hilabeterako.



... dotore jarri nahi baduzu
zatoz Euskadiko Kutxara

Gainera, Gabonetako Loterian 200 Pta.ko
partzipazioa oparituko dizugu.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ANOETA KO BELDROMOAN.

SARRERAK
OHIZKO LEKUEAN SALGAI
AURREZ: 1000 pzta.
40 libera.
EGUN BEREAN: 1200 pzta.
52 libera.
HAURRAK: 300 pzta.
12 libera.

Euskaldunak Festa

Abenduak 17 Larunbata

5. etan: MAIDER eta ALAITZ • AIRE ANIZAK • TUMBADITO, SASATALDEA • PILAZOAK • MIKEL MARKEZ • PEKATA MINUTA • JABI MUGURUZA • INAKI SIZMENDI • GODEVAPPELQUARTET • BERTSOLARIAK • BITOR AIAPE • ANDRA MARI KORALA.

8. etan: ZARAMA • BAP • LINTON TAUN • ETSAIK.

ETXANIZ

Erakustokia:

Juan Arana 1 • Tfnoa eta Faxe: 943-611767

Biltegia:

Juan Arana 3



- ✓ Sanitarioak
- ✓ Bainerak
- ✓ Manparak
- ✓ Griferiak
- ✓ Mobleak
- ✓ Ispiluak
- ✓ Kortinak
- ✓ Alfonbrak
- ✓ Osagarriak

